



Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BATZARRA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2015-02-02 Lekua: Santa Klararen Jauregia Ordua: 17:00 – 18:30

Bertaratutakoak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo
Eskuz-Esku: Isabel Pérez
Gizatiar: Begoña Fernández
Mujeres con Voz: Luciana Davies
Roda: Clara Lorenzo
Sozialisten Udal Taldea: Teresa García Oviedo
Alderdi Popularra: Ana Basilio
Bildu: Arantza Gutiérrez
EAJ-PNV: Elena Coria
ELA: Elvira Lemona
Kontseiluburua: Keltse Eiguren
Idazkaria: Arantza Cabeza

Ez dira bertaratu:

Getxo enpresa

Aztergai-zerrenda

- Aurreko akta onestea.
- Martxoaren 8rako proposamenak
- Berdintasun Planaren ebaluazioa
- Galderak eta eskaerak

“Santa Klara” udal eraikinaren batzar aretoan, 2015eko otsailaren 2an.

Egun horretako arratsaldeko bostetan Berdintasun Kontseilua batzartu da, aurretik egindako deialdiarekin bidali zen aztergaien zerrendako gaiak aztertzeko. Goian aipatutako pertsonak etorri dira.

Berdintasun zinegotziak batzarrari hasiera eman dio eta jakinarazi du Berdintasun teknikariak ezin izan duela batzarrera etorri, osasun arrazoiengatik. Horregatik, beste arlo bateko teknikari batek ordezkatu du eta berak dinamizatu du batzarra.

Gero, deialdiaren aztergaien zerrendako gaiak aztertu dira.

AURREKO AKTA ONESTEA

2014-12-11ko batzarreko akta aldaketarik gabe onetsi da.

MARTXOAREN 8rako PROPOSAMENAK.

Berdintasun zinegotziak jakitera eman du Idoia Eizmendik, batzar hori baino lehen, aurreko urteetan aztertutako gaiak bidali zituela emailaz. Errepaso bat egin du eta adierazi du urte batzuetan adierazpen instituzionala egin dela eta beste urte batzuetan ez dela egin (Eudelek udalerrien esku uzten du). Oraingoz ezin du ziurtatu Eudelek edo Berdinsareak adierazpenen bat proposatuko duten. Aukera guztiak daude irekita: adierazpen bat idaztea, Eudelek proposatzen duena onartzea, adierazpen instituzionalik ez egitea... Gobernu Taldeak gai orokor bat proposatu du: Erantzukidetasuna eta Uztartzea, Berdintasun Planaren barruan ildo estrategiko gisa jasota baitago. Sentsibilizazio kanpainak egin diren arren, gai hau jorratzeko egokia izan liteke. Etorri diren gainerako pertsonen hitza eman die, beren proposamenak azal ditzaten.

Ana Basiliok hitza hartu du. Prentsan irakurri duen iruzkin batez hitz egin du: Belén Estebanek “reality” batean esan omen du berak ez liokeela gizon bati lanbas bat hartzen utziko. Bada, hori irakurrita, berak uste du gai hau aztertu ahalko litzatekeela, hau da, komunikabideek genero berdintasunaren inguruko gaiak nola jasotzen eta komunikatzen dituzten eta nolako garrantzia ematen dieten.

Zinegotziak gogora ekarri du Komunikazio eta Berdintasun gaia dagoeneko aztertu dela.

Elena Coriak hitza hartu du gero. Esan du aurten hamar ikastetxek aplikatuko dutela Eusko Jaurlaritzaren baterako hezkuntzari eta genero indarkeriaren prebentzioari buruzko plan integrala. Planaren bidez eskolak baterako hezitzaile bihurtu nahi dira. Ikasgeletatik ateratzea eta kaleratzea interesgarria da.

Gainera, zentzu horretan, Adela Turínen lanak aipatu nahi ditu. Adela Turín ipuin-idazle italiarra da. Haren ipuinak genero ikuspegitik eginda daude. Haietako baten izena Arturo eta Clementina da, beste batek azalean elefante arrosak dauzka... Berdintasunean hezteko ipuinak dira.

Gero Luciana Daviesek hartu du hitza. Proposamen gisa oso egokia izan litekeen gai bat azaldu du: zaintza eta uztarketa. Emakume batzuek nahiago dute beste emakume bati enkargatzea euren umeen zaintza, euren bikotekidearengandik laguntza jasotzea baino. Hori adibide bat baino ez da, baina erakusten digu zaintza-lana beti emakumeei egokitzen zaiela.

Elvira Lemona ELaren ordezkariak esan du ohikoena hori dela, emakumeek egitea zaintza-lana alegia. Adibidez, Udal Egoitzan emakumezko 52 laguntzaile daude eta gizonezko bakar bat.

Gero, Teresa García Oviedok esan du gai biak bateratu litezkeela: Hezkidetza-hezkuntza balioetan; erantzukizun kidetza eta zaintza.

Batzartutakoak bat datoz: sentsibilizazio lana da eta behetik hasita egin behar da, jendartean kontzientzia sortzeko, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Baterako hezkuntza espazio guztietan.

Proposamen honen aldeko iritzia azaldu dira, eta gero Keltse Eigurenek gai honen inguruan egin beharreko jarduerak finkatzea proposatu du.

Luciana Daviesek bere ideia azaldu du: kale-inguruan work café bat egitea, eta beraren inguruan emakume taldeak, Getxoko elkarrekinak, biltzea, elkar ezagutzeko eta elkarrekin barruan egiten duten lanaren berri emateko eta proposatu den gaia aztertzeko. Esan du esekitoki bat diseinatu ahal zela, kartoizko janzkiak eskegitzeko, eta beraietan esaldiak idazteko: "zer eta emakumea izan behar zenuen...", emakumeek etxean egon behar dute, geldirik...". Horrela helburu bikoitza beteko litzateke. Kanean eginez, elkarrekin horien existentzia eta egiten duten lana erakutsiko lirateke jendartean. Are gehiago, jendeak bat egiteko modua izan daiteke, eta era berean emakume horiek guztiek elkar ezagutuko dute eta gaiari buruzko iritzia eta ideiak trukatu ahal dituzte.

Azkenik, adierazi da work café honetan Kontseiluko elkarrekin ez ezik "Getxoko emakume elkarrekin" parte hartuko dutela.

Keltse Eigurenek esan du, proposamen horren ondoren, jarduera horren garapena, printzipioz, elkarrekin egin beharreko lana dela eta espazio publikoaren kudeaketa, berriz, udalak egingo lukeela, espazio ikusgarri batean egin nahi dela adierazi baita. Aukera asko aipatu dira: Bihotz Alairen plaza, San Jose parrokia... Keltse Eiguren zinegotziak Juan Bautista Zabala ikastetxea proposatu du. Denek onartu dute proposamen hori, leku oso egokia delakoan. Kokaleku hori dela-eta, zenbait ideia iradoki dira:

Batzarraren hasiera hilaren 8an, igandea, goizeko 11etatik aurrera, izango litzateke. Umeentzako haurtzaindegia eskaini beharra aztertu behar da, eskaini denean eskaera oso txikia izan baita. Herri bazkaria egitea (paella begetala adibidez), prezio merkean, 3 euro inguru. Hurbildu nahi duten emakume guztientzat zabaltzea edo elkarrekin kideentzat bakarrik izatea nahi dugun pentsatzea. Komunikabideetan argitaratzea (Getxoberrin adibidez). Udalaren webgunean eta elkarrekin webgunetan estekak jartzea, izena emateko.

Erabaki behar diren kontu guztien aurrean, Keltse Eiguren zinegotziak iradoki die proposamen bat aurkez dezatela, eta mugaeguna datorren astelehena izan dadila, prestatzeko denbora nahikoa edukitzeko. Gainera, gogora ekarri du Idoia Eizmendik proposatu ohi zuela jarduerak batzuek besteak ez zapaltzeko moduan antola daitezela hilaren 8an. Eskatu du hitzaldi zehatzen bat, mahai-inguru bat edo beste edozein gauza proposatuz gero Berdintasunaren postara edo berera (keiguren@getxo.net) bidal dadila astelehena baino lehen, lehenago esan duenez.

Teresa García Oviedok esan du interesgarria izango litzatekeela bereizgarriren bat eramatea, parte hartzaile guztiak identifikatzen dituen. Bereizgarri hori txapa edo zapi bat izan liteke. Udalak ere proposamen horretan parte har lezake.

Isabel Pérezek, bestalde, ipuin-kontalari baten parte hartzea iradoki du, igandean edo jarduera gisa Kultur Etxean, eta ipuinek zerikusia izan dezatela martxoaren 8rako aukeratu den gaiarekin. Interesgarria litzateke, bestalde, Udal Liburutegietan martxoan zenbait liburu sustatzea, emakumeek idatziak.

Jardunaldia bai Getxoberrin bai Emekin azaltzea. Keltse Eigurenek esan du uste duela aste horretan bertan argitaratuko dela Emeki. Amaitzeko esan du

proposamen horiek guztiak aste osoan zehar elkarteek landu ditzaketela eta helbide elektronikoko horietara bidal ditzaketela astelehena baino lehen.

Berdintasun Planaren ebaluazioa

Hurrengo aztergaiari dagokionez, Keltse Eigurenek esan du 2011-2014ko Berdintasun Plana urteko planen bitartez garatzen dela. Urte bakoitzaren hasieran, urtean zehar egitea aurreikusten diren ekintzak identifikatzen dira. Urte amaieran egin dena eta egin ez dena baloratzen da (urteko balantzea). Balantze jarraitua da: abiaburuko diagnostiko bat egiten da, berdintasunean lortutako aurrerapenak ezagutzeko erreferentzia dena. Ekintza eta helburu bakoitza amaitu ondoren, ekintzok egiterakoan aurkitu diren zailtasunak eta lorpenak baloratuko dira. Horretarako, helburu bakoitzak bere adierazleak dauzka. Adierazle horiek neurtu behar dena azaltzen dute eta berdintasunaren garapena interpretatzen laguntzen dute. Ekintza bakoitza ebaluatzeko, fitxa bat betetzen da, ekintzaren emaitzak azaltzen dituena. Lau urteko plana amaitutakoan ebaluazio zabalago bat egingo da, plana betetzeari buruzkoa, beraren emaitzei buruzkoa eta planak udalerrian daukan eraginari buruzkoa.

Ebaluazioaren idazkuntza kontratazio fasean dago. Emaitza dakienean beraren berri emango du. Bestalde, uste du Kontseiluak martxoan egiten duen batzarrerako prest egon litekeela 2014ko ebaluazioa.

Galderak eta eskaerak.

Isabel Pérezek hitza hartu du. Ikasle batek eskatuta, "salatu" beharreko gertakari baten berri eman nahi du: alderdi politiko batek bere udal hautagaiak aurkeztu zituenean, gizonak beren burua aurkezterakoan beren ikasketa-maila, lanpostua eta abarrekoak azaltzen zituzten. Emakumeek, aldiz, beren burua aurkezterakoan beren egoera zibila, seme-alabarik zeukaten edo ez... eta horren ostean bakarrik hitz egiten zuten beren ikasketa eta lanaz. Horrela, berak uste du emakumeek aditzera ematen zutela beren egoera zibila eta beren zaintzaile, ama ... izaera garrantzitsuagoak zirela beren prestakuntza baino, kargua betetzeko orduan.

Baieztape hori entzun ondoren, Keltse Eigurenek esan du bere ustez hori alderdi horren barne arazoa dela. Bakoitzak alderdi politiko horretan adierazi duena da gaia. Izan ere, alderdiaren barne-batzarrean gertatu zen hori, itxuraz. Horregatik, ez du uste Berdintasun Kontseilu honetara ekarri beharreko auzia denik.

Batzartutakoaren artean iritzi asko daude: batzuek uste dute batzarrean jendartearen sentsibilitatea sortzeaz hitz egiten ari direla eta ingurune sozial guztietan berdintasun balioak zabaldu behar direla, eta horrenbestez alderdi politikoak jendartearen barruan daudenez gero beren erakundeetan aplikatu behar dutela. Batek esan du albiste hau jakinik bere alderdiko emakumei jakinaraziko diela beren curriculumak egiterakoan ikasketak eta lan esperientzia azpimarratu ditzatela, eta ez ama, ezkondua edo banandua diren. Beste batzuek uste dute ez dela alderdi kontua, pertsona kontua baino, eta horrelako jarrera eta ideiak dauzkatela hainbat emakumek, euren talde politikoa zein den gorabehera; honelako kontuak pertsonaren arabera dira eta ideologia politikoren arabera.

Isabel Pérezek hasiera batean ez du esan kexa zein alderdi politikori buruzkoa den, baina orain zehaztu du EAJn gertatu zela.

Keltse Eigurenek esan du ez dakiela hori EAJn gertatu den edo ez. Baina bere lehenbiziko interbentzioan esan duenez, alderdi politikoa zehaztu baino lehen errepikatu du alderdi baten barne funtzionamenduko kontua dela, eta alderdikideek gainontzeko alderdikideei gura duten moduan hitz egiten dietela. Era berean, albistea zuzendu behar du: EAJren hautagaiak oraindik ez dira jendaurrean aurkeztu. Beraz, albistearen oinarritzko datua okerra da. Finean, uste du foro hau ez dela leku egokia alderdi baten barne arazo bat jakinarazteko. Edonola ere,

Kontseilura ekarri diren egitate hauen errealitatea eta testuingurua hobeto jakin beharko genituzke.

Aztergai gehiagorik ez dagoenez gero, batzarra amaitutzat eman da, arratsaldeko sei eta erdietan.